

ARGIÑOLAKO EZ OHIZKO BATZARRA NAGUSIA

- Uztailak 5, bigarren deialdian 18:30tan
- Iturri kultur-etxeko areto nagusian
- 52 bazkide izanda, 28 bertaratu ginen.

Batzarraren sarrera eta ongi-etorria argiñolako Carmen intxaustik egin zuen.

Ondoren batzarra 4 zatitan banatu zen:

- Administrazioa/kudeaketa
- Komunikazioa/Aktibazioa
- Talde teknikoa
- Herrien arteko sarea.


Azkenik, galdera eta iradokizunentzako tartea ireki zen.

ADMINISTRAZIO/KUDEAKETA

Orainarte egindakoak azaldu ziren: kooperatiban sorrera, kontu-korrontea, fakturan kudeaketa etabar.

Gainera kooperatibaren erabaki eta lan taldeen azalpena egin zen.

- Lan-taldeetan partehartzeko gonbidapena luzatu zen.
- Herritarren iritzia kooperatibaren erabakietan zelan kontuan hartuko ditugun ere azaldu zen: deliberazio foroa.
 - Adimen kolektiboa sustatzeko helburuarekin
 - Herritar guztiei irekia
 - Gutxienez urtean behin egingo dena



KOMUNIKAZIOA/AKTIBAZIOA

Komunikazio taldetik kooperatiba eratzeke egindako ibilbidea eta ekintzen berri eman zen.

Bertan azaldu ziren erabiliko ditugun komunikazioa kanalak, ahoz-ahokoari lehentasuna ematen:

1. Webgunea: www.argiñola.eus
 - Gogoratu bertan ikusi dezakegula bazkideen mapa.
2. Whatsapp. Ez ditugu erabiliko sare-sozialak: twitter, facebook,... Herri mailako erakundea delako.
3. Hileroko buletina.
4. Eta esan bezala hurbileko harremana: mahaiak, etabarrak.

Aurrera begira filmak, hitzaldi eta tailerrak antolatzea da helburu aholkularitza eta proiektuak bultzatzeko, bi ikuspuntu nabarmenduz:

- Herritarrak bultzatzeko eta egingo ditugunak agerian uzteko datuak eta hauekin bilakaera erakutsi behar dugula.
- Zuon eskaerak behar ditugu behar diren hitzaldi eta tailerrak egiteko.

TALDE TEKNIKOAK

Talde teknikotik ditugun hiru ildoak aipatu ziren:

1. Informazio biltzea, herrian ditugun energia baliabideen azterketa.
2. Aholkularitza zerbitzu bat zabaltzea herritarrei irailetik aurrera.
3. Eta lehenengo proiektuaren berri ere eman zen:

- Herri Eskolako teiltuetan.
- Ez da komertzializadora aldatu beharko
- Energia esleipena bakoitzaren beharriaz egokituko zaio eta paketea egingo da.
- Eta aurrezpenaren zati bat kooperatibari eman beharko zaio, honen jardueraren bermatzeko.

HERRIEN ARTEKO SAREA

D2030, **DEBAGOIENA 2030** Garapen iraunkorrerako sareko arduraduna den Elena Herrarte etorri zitzaigun euren jardueraren berri ematera eta honetaz Elorrioren zelan baliatu gaitezkeen azaltzera.



**Eraginez
piztu**

Trantsizio
energetikoa



Elenak sarreraren aipatu zuen Argiñolaren egoera DebaGoienako beste Energia komunitate batzuekin berdina dela, denok gutxi gora behera antzeko heldutasun egoera batetan gaudela eta beharizanak berdinak direla.

Energia alorrean D2030 jardueraren estrategia ardatzak kontatu zizkigun.

Hauen artean Komunitate energetikoen sustapenerako ERNAMUINA LAN TALDEA aipatu zen:

- ✓ NORTZUK OSTZEN DUGU: DG-ko Energia Komunitateak + Otxandio, Orereta eta Elorrio
- ✓ ZERTARAKO SORTU DA: Energia komunitateen garapenera begira partekatzen ditugun beharrei lankidetzatik erantzuteko.
 - Lege babesa kooperatibari eta udalei
 - Negozio ereduak
 - Barne araudia
 - Zerbitzu komunak (aholkularitza, softwarea, harremanak...)

Eskerrak eman genizkion Elenari partehartzeko hartu duen denboragatik.

GALDERA eta IRADOKIZUNAK

Galdera iradokizunetan aipatutakoek bazkideon artean energia berriztagarrietarako trantsizioaren gogoan agerian utzi zuten eta baita ere, lehenengo aurrezpenaren lan egin behar dugunaren sinesmen sendoa.

Proiektuaren helburua edo jomuga hobeto azaldu behar dugula aipatu zuen bazkide batek, herritar gehiagora heltzeko.

Beste bazkide batek bere teiltua eskaini zuen autokontsumorako. Baina oraindik ez daukagu erantzuna emateko ahalmena, gure ahalgune bat delarik oraindik ere.